



MAXIXATZEN

ZENBAKI HONEKIN BATERA
+ GUKA ALDIZKARIA

NEREA MACHADO

GIZARTE BEHARREN ATZEAN



erreforma integralak

dica



URRATEGI
INTERIORISMO
batue diadina

www.urrategiinteriorismo.com
Aragasta 27 Arretxe 9
20600 Eibar 20730 Azpeitia

...erantzuna gara ...ALBERDI gara



943 16 98 78

info@alberdi-inmobiliaria.com
Trenbidearen Zumardia, 3 AZKOITIA

**Zure ametsak edozein direla ere, zaude ziur
egi bihurtzen lagunduko dizugula.**



2 logela · 2 bainugela · 71 m²

AZKOITIA - ZUATZOLA KALEA

**Xarma berezia duen
etxebizitza Zuatzola Kalean**

**Salgai
235.000€**



2 logela · 1 bainugela · 69 m²

AZKOITIA - ESTRADA AUZOA

**Egoera onean dagoen
babes ofizialeko etxebizitza**

**Salgai
165.200€**

Etor zaitez aukera desberdinak ikustera.



Eskaintza osorako bisita ezazu: www.alberdi-inmobiliaria.com



MAXIXATZEN 425

2022-AZAROA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
ARNAITZ RUBIO APREA

Aurkibidea

- | | | | |
|----|--|----|--|
| 5 | Iritzia Nere Uranga, <i>Badatozela.</i> | 20 | Elkarrikketa Ioritz Gonzalez, Pantailak Euskaraz mugimenduko kidea. |
| 6 | Hitz bitan Joxan Mendizabal, bideogilea. | 24 | Zakelmari. |
| 8 | Izpiak eta hizkiak Aitor Goenaga, <i>Azken baso dantza.</i> | 26 | Erretratua Jenny Calero, dantzaria eta dantza irakaslea. |
| 10 | Iritziak Juan Ramon Alberdi, <i>Egur-aldia; Rina Cabeza, Indarkeria matxista eta sare sozialak.</i> | 30 | Plazan Bazan. |
| 12 | Elkarrikketa Nerea Machado, Itsas Salbamendu Humanitarioko eta Parrokiako kidea. | 32 | Mahai bueltan. Jorge Teixeira. |
| 18 | Iritzia Kari Alberdi, <i>'Zer gera pantailak itzalita?'</i> | 36 | Erreportajea <i>Letren erreinuaren zimendua.</i> |
| 19 | Iritzi grafikoa Gorka Larrañaga, <i>Bide ertzeko aztarnak... Aizpurutxo.</i> | 40 | Klik! <i>Hilen herriak arima bizirik.</i> |
| | | 44 | Iritzia Irene Elorza, <i>Ni ez noa.</i> |
| | | 46 | Euskara Miren Alberdi, <i>Euskara mundiala da.</i> |
| | | | Bertsoa <i>paperetan.</i> |

MAXIXATZEN

Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-85 36 17
maxixatzen@maxixatzen.eus
www.maxixatzen.eus

Erredaktoreburua

Ane Olaizola
Erredaktore taldea
Anartz Izagirre
Andoni Eldualen
Nerea Uranga
Ane Olaizola

Diseinu arduraduna

Iñaki Martinez Albizu
Publizitate arduraduna
Egoitz Azkoitia
Zenbaki honetako kolaboratzaileak
Arnaitz Rubio Aprea
Naia Arriazabalaga

Aitor Goenaga
Juan Ramon Alberdi
Rina Cabeza
Kari Alberdi
Gorka Larrañaga
Irene Elorza
Miren Alberdi
Unai Izagirre

Administrazio Inprimategia

Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)
Lege Gordailua:
SS-706/97
ISSN: 1137-8891
Tirada: 1.000 ale

TOKIKOM



Gipuzkoako Foru Aldundia



AZKOITIA
Udala



PUBLIZITATEA

Naike
TATTOO STUDIO

JULIAN ELORZA 5 AZPETA
672 17 88 51



EGUZKI
belandanda
dietetika
kosmetika naturala



Kale Nagusia 67 • 943-50 34 47 **AZKOITIA**
Urbaitarte 9 bis • 943-15 00 23 **AZPETA**

Web proiektuak
Software ingeniariatza

elkarmedia()

info@elkarmedia.eus
943-85 08 74

e t k

Informatika Zerbitzuak
943-02 63 29
www.etkinformatika.com

br

arkitekturaestudioa
santaklara kalea 35 | 943083487
www.brarkitektura.com

PB Sport

Itakondak, 7 • 943-02 56 88
Kale Nagusia, 87 • 943-65 20 88
AZKOITIA

ttakun

NAGUSIA 81 • 943-08 30 32
www.tta-kun.com • azkoitia_ttakun@hotmail.com

Dean

Kale Nagusia, 41 • 943-10 52 62

ETXEZA TABERNA

Etxeiza Etxea, 2/G. • 943-85 20 31

artelan

Paulo Arango
Reservatu zurea!
Tel. 943 85 18 46
943 72 88 88

- Marrazkia
- Olio-pintura
- Abuzaria
- Pastelak-pintura
- Italo
- marrazkia
- Zeramika
- Pastelak
- Eskulak



zur

OGIARTEDONAK,
SANDWICHAK ETA HAMBURGESAK
GINTSALAKAK
RABOAK
GARAGARDO ETA ARDO ESQUANTZA ZASALA
TERRAZA HANDIA ZUZENENKO EMANALDIAK
KALE NAGUSIA, 68 • 943-85 12 75

LATZ
TABERNA

ARTISANALAK
GINTSALAK
PINTOIAK
PLATER-KOINAK
RABOAK
OSTATZEN
ARDO ESQUANTZA ZASALA
BORRI ETA ARDO OKUP
HABERABAK
LARRUNDA ETAN OKUP ARTE HERRITA
KALE NAGUSIA, 55 • 943-85 13 19

ALDAKO

SARE ETA INFORMATIKA
ZERBITZUAK

SAREAK, IRTEERAK ETA
ORDENAGAILU, MUGIKOR
ETA TABLET KONPOKETAK

Kale Nagusia, 46 • 20720 Azkoitia
Tel. 943-08 36 14 • 629 09 92 76
aldako.informatica@gmail.com

ARANBARRI
KANTINA

ESKAINITZA
Aingeru Kalea

65 m²
2

www.aranbarri.com



Badatozela



NEREA URANGA

Badatoz sanandresak, festa ederrak, nolanahi ere. Jai egun bakar bat izatetik, ospakizunak egun gehiagotara luzatu dira urteen poderioz. Azaroaren 30ari, San Andres egunari, lotutako ekintzak hil honen erdialdeko astebururako hasten dira, eta nahiko txistorra eta talo jan osteko egunaren ondorengo egunetan ere izaten da aleren bat edo beste. Dela kontzertua, dela herri lasterketa, dela helduen danborrada, xake txapelketa, idi probak, txorizo pintxoan eta taloen postuak, herri kirol erakustaldia, dantzarien eta musikarien kalejirak... Askotariko ekitaldiek osatzen dituzte sanandresak.

Gaueko jaiari uko egiten diodanik ezin esan, baina eguneko festa egunak ditut gogokoan; tartean, San Andres egunekoa. Iaz, egun hori, behar bezala ospatzeko aukerarik ez genuen izan; pandemia madarikatua izan zen horretarako oztipoa. Festa eguna baino bost egun lehenago erabaki zuen Udaleko Bozeramaileen Batzordeak San Andres eguneko kaleko ekitaldiak bertan behera uztea. Erabaki hori hartzeko arrazoia, Jaurlaritzako Osasun Sailak argitaratutako COVID-19aren intzidentzia datuen arabera, herrian "egoera gaiztotu" egin zela izan zen. Txistorra eta taloa etxean edota beste nonbait jan behar, zer erremedio.

Ordutx gero, kendu ditugu musukoak –ea garraio publikoan noiz!–, gelak eta dena delakoak. Desikasi ditugu garai hartan ikasitako gauza asko ere, hala nola inguruko bazterrak ezagutzea, eguneroko pasierak egitea, inorako presarik gabe gauzak astiarekin egiteko tartea hartzea, herrian bertan erosketa gehienak egitea edota bertakoari balioa ematea.

Bolada hura, ordea, pasatu da. Aurrenekoak balira bezala gozatu ditugu musukoa kendu orduko ospatu diren festak. Eta zer arraiio! Festak zertarako dira gozatzeko eta ondo pasatzeko ez badira!

Baina festarako kaletarrok baserritarrez *mozorrotzen* garenean gogoan izan dezagun, ez gaitezen ahaztu, baserritarrak ezinbestekoak direla azoka plaza bizirik mantentzeko, inguruko mendiak, basoak eta larreak zainduta eta garbi mantentzeko nahiz herriko hizkerari –Azkoitiko hitz *berezixe*, besteak beste–, euskarari, eusteko.

Ez gaitezen ahaztu, sanandresak ospatzen ditugun egun horietan euskararen erabilera sustatzeko Euskaraldia ariketa kolektiboan murgilduta egongo garela –azaroaren 18tik abenduaren 2ra artean da–; egin arigune festarako gunea, izan *belarriprest* edota *ahobizi* sanandresetan ere.

Ondo pasatu sanandresak! ■■■

**SANANDRESETAN
EUSKARALDIA
ARIKETA KOLEKTIBOAN
MURGILDUTA
EGONGO GARA**

"Erraldoien atzean ezagutzen ez nuen mundu bat dago"

TESTUA ETA ARGAZKIA: **ANARTZ IZAGIRRE**

Youtuben Festak YT kanala ireki zuen Joxan Mendizabalek (Azkoitia, 1997) orain dela hamar urte, 15 urte zituela. Ordutik, kultur ekitaldiekin eta festekin lotura duten dozenaka bideo igo ditu hara, eta milioi bat bisita ditu kanalak.

"Ikus-entzunezko ondarea egiten", diozu Festak YT kanalaren deskribapenean. Zer helbururekin sortu zenuen kanala?

Etxean betidanik jaso izan dut herriko kultura, eta beti parte hartu izan dut Azkoitiko danborradan eta Aste Santuko prozesioan. Erraldoien desfileetara ere beti joan izan naiz. Duela hamar urte horiek grabatzen hasi nintzen, intentzio handirik gabe. Hasieran nik ikusteko soilik grabatzen nituen. Momentu hartan hasi zen sare sozialen *boom*-a; Youtuben halako edukia falta zela iruditzen zitzaidan, eta halaxe hasi nintzen. Ikusi nuen komunitate moduko bat sortzen ari zela.

Zer-nolako garrantzia du zuretzat kulturaren transmisioak?

Handia. Gaur egungo bideoek beharbada ez dute garrantzirik izaten oraindik, baina urte luzez hor irauten badute, beste balio bat izan ohi dute. Ikus-entzunezko kultur ondare hori sarean egotea nahi dut.

2012. urtean sortu zenuen orrialdea. Ordutik zer-nolako bilakaera izan du?

Denborak aurrera egin ahala, irudiak hobeto grabatzen eta editatzen hasi naiz; orain, 4K-n grabatzen ditut horiek. Bisitak ere asko igo dira, eta aurten flipatu egin dut, milioi bat bisita gainditu baititu kanalak. Gainera, mila harpide izatera ere heldu naiz; familiakoek garaikur bat oparitu zidaten horregatik.

Nolakoak dira arrakasta gehien izan ohi dituzten bideoak?

Nire orrialdean, batik bat, erraldoien bideoak, danborradetakoak eta Aste Santuetakoak daude; erraldoienak dira, dudarik gabe, arrakasta gehien dutenak. Azpeitiko jaietan egiten den erraldoien kalejiraren 2017ko bideoak, adibidez, 400 mila

bisitatik gora ditu. Ez nuen espero, eta halakoetan presioa sentitzen duzu; hurrengo urteetan hobeto grabatu behar duzula pentsatzen duzu. Ordutik aurrera, erraldoien munduan sartzen joan nintzen, eta harreman handia dut konpartsekin. Erraldoien atzean ezagutzen ez nuen mundu bat dago, eta espero gabe komunitate batean sartu naiz.

Zeuk grabatutakoak al dira kanalean ikusgai duden bideo guztiak?

Berrienak, bai. Horrez gain, nire aita –Juan Bautista Mendizabal– kultura zinegotzi izan zen 80ko hamarkadatik 2000. urte hasierara bitartean, eta Vicente Gonzalez *Paje*-ren bideo asko heltzen zitzaizkion. Pena zen haren bideo guztiak hor gelditzea, eta horiek digitalizatzen hasi nintzen, lagun baten bitartez. Horrez gain, kanalean dudan bideorik zaharrena 1932ko Azkoitiko Aste Santukoa da. Don Joaquín apaiza hil zenean nire aitak kasete bat topatu zuen haren etxean, eta Euskadiko Filmotekara bidali genuen. Itxura denez, garai hartan Gobernuaren eta Elizaren harteko harremana ez zen ona, eta uste zuten azken prozesioak izango zirela; horregatik grabatu zuten. Azkoitiko lehen grabazio zinematografikoa da hura, eta nire kanalean dago kopia.

Kanalaren harpideengandik zer-nolako erantzuna jaso duzu?

Kalean ikusitakoan esan izan didate: "Nire seme-alabek zure kanaleko bideoak ikusten dituzte". Nik ez dut nire aurpegiak erakusten bideoetan, baina amaieran nire izena jartzen dut. 90eko hamarkadako bideoak igo izan ditudanetan gurasoen lagunak eta ezagunak ere etorri izan zaizkit, eta eskertu egin didate bideo horiek errekuuperatzeko hartutako lana. Halako mezuek poztu egiten zaituzte.

Zeintzuk dira kanalarekin dituzun aurrera begirako asmoak?

Uste dut kanala bilakatu dela bilakatu behar zuenean. Umiltasun osoarekin egiten dut, gustatu egiten zaidalako. Nahi dut bideoek urte luzez hor irautea, hurrengo belaunaldiei iristeko. ■



Azken baso dantza

ARGAZKIA ETA TESTUA: **AITOR GOENAGA**

Eta gure mendietan eoliko enordez pagoak ladantzen baditugu? Betiko belar txarrak diruz potoltzen jarraitu beharrean, guztiok aberastuko gara, dirua ezin baita arnastu.

Animalien mundua erabiltzen dugu indartsuenaren legea arrazoitzeko. Bada garaia landareen bizitzeko moduan inspiratuta elkarrekin komunitatean bizitzen hasteko. ■■■







Egur-aldia

Datu klimatologikoek diotenez, 2022ko uda neurketa klimatologikoak egiten diren geroztik historiako beroena izan da. Eta euri emaria kontuan hartuz gero, lehorrenetakoa. Bazter guztiak gorritu dira eta ibaiak erabat txikitu, errekaetako urritu eta iturri asko agortu. Gainera, suteek izugarriko kalteak eragin dituzte landetan eta basoetan, non zuhaitzekin batera, horien anparoan bizi den fauna eta biodibertsitatea ere suntsitu den. Horrek guztiak arazo ekologiko larriak sorrarazteaz gain, eragozpen handiak ekarri dizkie naturarekin lotura zuzena duten lanbideei, hala nola nekazaritzari eta abeltzaintzari.

Bestalde, eguraldi bero hark sufrikario handia sorrarazi zuen: egunez itogarria eta gauez

jasanezina. Eta eragozpen horrek, pertsonaren ezaugarriek eragindako salbuespenak salbu, era bertsuan eragin zion populazio osoari. Horregatik, eguraldiaren gaia solasaldi askoren osagarri izan ohi den arren, orduan ezinbestekoa bilakatu zen. Geure buruari, gertukoari, ingurukoari: "Bero hau ezin daiteke jasan!", esaten genion, eta bakoitzak ahal zuen moduan egiten zion aurre. Alabaina, beroaldi larrienak igarotakoan ahortzi egiten zitzaigun muturreko egoera hark suposatzen zuen tragedia, eta aisialdirako probesten genuen eguraldi "onaren" aukera. Iturritik urak irteten duen bitartean, igerilekuak irekita jarraitzen duten artean, edo itsasora gerturatzeko beta izanez gero, dibertimenduaren ateen zabalik dihardute.

Aspaldiko esaldiak dioen gisan, "ez dago feria txarrik denentzako", eta batzuentzat galera ekartzen duen zirkunstantziak besteentzako onurak sorrarazten ditu. Horregatik, landa eremuan ur eskasiak eragindako larritasuna ikaragarria izan arren, aisialdirako prestatuta dagoen hainbat negozioerentzat eguraldi lehorra paregabea da. Ildo horretan, "eguraldi txarriari aurpegi alaia" esaldia beti euriarekin lotzen dugun arren, aurtengo udararen kasuan, eguraldi lehorrarekin erlazionatzeko moduan gaudela esan dezakegu. Ezen, klima aldaketak ekarriko dizkigun kalteak jadanik nozitzen hasita gauden arren, beti aurkitzen dugu zirrikituren bat momentuko onura edo probetxua ateratzeko.

Halaber, maiz aipatzen dugu, eguraldiaren kontrola gizakion

HAUXE BAI JENEROA!



ERREIMATEA



RINA CABEZA

Indarkeria matxista eta sare sozialak

Sare sozialen eta plataforma digitalen hedapenarekin batera, indarkeria matxistak forma berriak garatu ditu. Aipatzekoa da orain arte nahiko ezezagunak ziren jokabide batzuek lotura dutela Instagram, Whatsapp edota Onlyfans bezalako plataforma digitalen gorakadarekin. Sare sozial horietan ohikoak dira emakumeen itxuraren aurkako iruzkin gaitzesgarriak eta irainak. Hori gutxi ez, eta jarrera jakin batzuek normalizatu egiten dira: bikotekideak zure mezuak irakurtzea, igotzen duzun edukia kontrolatzea edota baimenik gabe sexu konnotazio handiko zure edukia partekatzea.

Horrek guztiak, besteak beste, abusu egoerak normalizatzen ditu norbanakoaren izenean. Gizonek beren emakumeei egotzita tratatu txarrak ematearen errua. Aipatzekoa da, emakumea kapitalismoan duen funtzio sozialagatik egiturazkoa den indarkeria jasatera kondenatuta dagoela. Horregatik, proposamen estrategiko eraginkorrak garatu behar dira arazoa gainditzeko eta ez arazoaren barruan aldaketak egiteko. Beraz, nik argi daukat: dagoena onartu edo borrokara batu. ■

esku balego, bere kudeaketak beste ezerk baino guda larriagoak sorraraziko lituzkeela; eta ziur aski, egia izango da. Nahiz eta klimaren aldaketan eragin zuzena dugun, momentuz bederen, ezin dugu eguraldia kontrolatu. Alabaina, badugu kontrol horretara gehien gerturatzen den estrategia bat: eguraldiaren iragarpena. Eta iragarpen horretaz baliatzen gara etorkizunean egiteko ditugun gauza ororen oinarriak finkatzeko: arropa, lana, kirola, aisia. Eguraldia ezin dugu aukeratu, baina bai aurreikusi, eta iragarpen horri diogun fedearen menpekotasuna erabatekoa da. Are gehiago, hain jainkotuta ditugu eguraldiaren iragartzailak, non aurreikusitako eguraldia egin ezean, hutsegitea eguraldiaren errutzat hartzen dugun.

Eguraldi iragarpen horiek era askotara iristen zaizkigu. Batzuek, prentsa edo Internet kasu, nahiko inpertsonalak dira: marrazki eta datu batzuen bidez jarritako zazpi edo hamalau eguneko aurreikuspenak. Pertsonalagoak direnetan, irratikoei izen-abizenak eta ahotsa jartzen dizkiegu; eta telebistakoei, baita aurpegia ere. Kasu hauetan, iragarpenak motzagoak izaten dira, zehatzagoak; eta harritzekoa bada ere, iragarleak batzuetan desenkusatu egiten dira komenigarria litzatekeen eguraldia ezin dutelako iragarri.

Horra hor, etorkizuna iragarri arren aldatu ezin duen "Jainko ttipiaren" arrangura. Hala ere, beti izango ditu gabezia horrek eragin ditzakeen akatsak probesteko prest dauden akolitoak. ■



"Kezkarik gabe bizitzea nahi du egungo herritarrak"

NEREA MACHADO ITSAS SALBAMENDU HUMANITARIOKO (ISH) ETA PARROKIAKO KIDEA

Gizarte alorreko gaiek kezkatzen dute Nerea Machado. Gizakia "indibidualismoara jotzen" ari den honetan, gaizki dauden gauzak aldatzeko parte hartu behar dela dio hark. Behar horri tiraka egin zen boluntario Itsas Salbamendu Humanitarioan (ISH) eta Azkoitiko Parrokiako taldean.

Testua: **Andoni Elduaen**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea**.

Geldirik egoten ez dakien horietakoa da Nerea Machado (Azpeitia, 1975). Hiru seme-alaben ama da, eta duela gutxi irakaskuntza mundura itzuli da berriz ere. Azkoitiko bizilagunak aitortu duenez, "gustura" dabil gazteen artean, modu horretan egungo gazteen eta generazio berrien errealitatea zein den ikusteko eta ulertzeko aukera baitu. Aurrez, baina, boluntario lanak egin ditu han eta hemen. Esaterako, seme-alaben ikastetxeko guraso taldean parte hartu zuen duela urte batzuk, eta egun, Itsas Salbamendu Humanitarioko (ISH), Azkoitia Bai herri plataformako eta Azkoitiko Parrokiako taldeko kidea da.

Gizarte alorreko eginkizunetan murgiltzen zara egunerokoan, gizarte alorreko gaiek kezkatzen zaituztelako. Hala da, ezta?

Kezka sortzen didate, bai. Grazia egiten dit kalean "hau gaizki dago" edo "beste gaizki dago" esaten duen jendeak. Gaizki dagoen hori aldatzeko zerbait egin behar da, eta sinetsita nago zerbait egite hori norbera inplikatzeko dela. Gauzak beste era batera bideratu daitezkeela ikusten dudanean, inplikatzeko edo laguntzeko beharra sentitzen dut. Seme-alaben ikastetxeko guraso elkarteko kidea izan nintzen, eta egun, Azkoitia Bai herri

plataformako kidea ere banaiz. Halere, eta posible badut, eskatzen didaten beste lekuetan ere eskaintzen dut laguntza.

Gizartean fronte asko daude irekita. Zuk errefuxiatuei laguntzea erabaki zenuen. Nola batu zinen ISHren proiektura?

2015ean, kasualitatez, lagun ezkutuko oparia koinatuari egitea egokitu zitzaidan. Hura arrantzan ibiltzen denez, Getarian [Gipuzkoa] itsasontzi batean arrantzan egiteko txartel bat oparitu nahi izan nion. Orduan esan zidaten itsasontzi haren jabea laguntza humanitarioa ematera Greziara joana zela. ISHko kide baten kontaktua pasatu zidaten segituan, eta hala lortu nuen, batetik, koinatuarentzako arrantzarako txartela, eta bestetik, erakundea ezagutzea. **Herrian egindako boluntario lanari esker iritsi zitzaizun ISHn sartzeko aukera, ezta?**

Kezkatuta geunden herriko guraso talde bat elkartu ginen, eta guztion artean erakundeari bultzada emateko, ISH diruz gehiago laguntzeko, herrian zerbait egitea pentsatu genuen. Eskubidez izena jarri genion guraso taldeari, eta, 2018an, Izaro Andresen kontzertua antolatu genuen. *Aita Mari* itsasontzia Getarian zegoen batean, hura bisitatzera gonbidatu ninduten, eta orduan esan zidaten sukaldean lan egingo zuen norbait behar zutela. Nire burua eskaini nien boluntario lanetan





hasteko. Ordurako banuen hartu-emana erakundeko kide batzuekin, baina orduan, guztiz sendotu zen gure arteko harremana. Bitarte horretan senar ohiarekin banandu egin nintzen, eta lana behar nuenez, 2019ko urtarrilean erakundearen kudeaketarako lanaldi erdia eskaini zidaten.

Nola oroitzen duzu ISHko kudeatzaile izan zinen garaia?

Oso oroitzapen onak esnarazten dizkit. *Aita Mari* itsasontziak portutik ateratzen hasi baino lehen salbatu ninduen ni. Lana behar nuen orduan, eta ez nuen aurkitzen. 43 urteko emakume batek zaila du lan munduan sartzea, eta niretzat egundoko salbazioa izan zen. Lan hari esker, goian mantendu ahal izan nuen nire burua, eginkizun horretan sinesten dudalako zein beharrezkoa iruditzen zaidalako eta erakundearen parte zuzena nintzelako.

Erraztasun gutxi eta zailtasun askoko lana zen, ezta?

Jendeak uste du itsasontzia hartu eta itsasora irtetea dela kontua, baina ez da horren erraza. Itsasoratzeko, proba handiak gainditu eta baimenak lortu behar izaten dituzte itsasontziek. Baimena, gainera, mugatua izaten da batzuetan. *Aita Mari* lehen aldiz itsasoratu zenean, soilik Greziara joateko baimena eman ziguten. Horregatik, baimena eskatzerakoan ez da esaten itsasontzia erreskatea egitera doala, bestela ez litzateke portutik irten ere egingo.

Zergatik?

Nazioarteko politikan badago halako arazo bat, eta neurri batean, kontu batzuk uler ditzaket. Errusiaren eta Ukrainaren arteko gerra iritsi zenean, kristo guztia mobilizatu zen hemendik Ukrainara hango herritarren bila joateko. Italia ere laguntza behar duen jendeaz lepo dago, baina inori ez zaio bururatu hara laguntza ematera joatea. Estatu hori kokoteraino egotea uler dezaket hein batean, baina arazoa Europa da, hark duen akordioa ez baitu betetzen. Estatu guztiak kontu honekin ez zipriztintzen ahalegintzen dira, ahalik eta zarata gutxien aterata.

Egun ISHko kide izaten jarraitzen al duzu?

Hiru urte egin nituen ISHko kudeatzaile lanetan, baina gero, egundoko karga bihurtu zen niretzat. Izan ere, lanen bat behar bezala egiten ez banuen, itsasontzia ez zen irteten portutik. Itsasontziko tripulazioa kudeatzea, dirulaguntzak eskatzea, erakunde publikoekin hitz egitea, dirua zaintzea... garrantzi handiko lana zen, horiek guztiak ez dira ardura txikiak. Gainera, hiru umeren ama izanda eta lanaldi erdira arituta, ez nuen hilaren amaierara iristerik lortzen. Hori horrela izanik, pauso bat albora eman nuen. Halere, oraindik boluntario lanak egiten jarraitzen dut ISHn.

Egoerak gordina izaten jarraitzen du errefuxiatuentzat. Nola ikusten duzu panorama?

Panorama eskasa da. Europa dirua ematen ari zaio Turkiari, han errefuxiatuen esparruak egin ditzaten. Bien bitartean, gu 'bakean' gaude;



**"AITA MARI ITSASONTZIAK
PORTUTIK ATERA BAINO LEHEN INOR
SALBATU BADU, HORI NI IZAN NAIZ"**

**"GEROZ ETA GEHIAGO ARI GARA
IXTEN, INDIBIDUALISMORA JOTZEN,
ETA HORI EZIN DUT JASAN"**

**"GAUZAK ALDATU NAHI BALDIN
BADIRA, PARTE HARTU ETA LAGUNDU
EGIN BEHAR DA GIZARTEAN"**

errefuxiatu guztiak han gelditzen badira, 'ezin hobeto'. Europak badaki zer ari den gertatzen, baina beste aldera begira dago. Horregatik, ezinbestekoak dira *Aita Mari* bezalako itsasontziak, haiek Mediterraneoan gertatzen ari dena erakusten laguntzen baitute. Ukrainaren eta

Errusiaren arteko gerrarekin, ordea, lehenaz gain, zokoratuta gelditu da itsasoko errefuxiatuen kontua. Erregaiarekin eta energiarekin nahikoa dugu orain. Europako biztanleei zuzenean eragiten dien kontua izanik, eta kezka gehiago sortzen duenez, horretan dute jarrita fokua. Bien bitartean, jendeak guk sortutako gerretatik ihesean jarraitzen du, ordea.

Zein dira ISHK epe motzerako dituen asmoak?

Erreskate misioak egiten jarraitu nahi du ISHK. Dena den, urteko azken txanpari heltzeko ekintzak prestatzen ari da erakundea. Dirulaguntzak-eta urtebetekoak direnez, proiektua ere epe horretara mugatzen da. Gizartea sentsibilizatzeko ekintzak egiten jarraituko du ISHK; izan ere, erakundeak oso ezaguna dirudien arren, jendartean ez da oraindik behar beste ezagutzen. Mediterraneoan itsasoan gertatzen ari dena errealitatea da, eta hori jendeak jakitea da erakundeak duen nahi nagusia.

Migratzaileen familia batekoa zara zu ere. Horrek eragin zuzena izan al du ISHn parte hartzen hasterakoan?

Etxean oso argi barneratu dut nire sustraien zati bat Azpeitiko delata eta beste Zamorako herri txiki batekoa. Gai horrekin ez dut inoiz barne borrokarik izan. 2015eko irailean, Aylan Kurdi haur siriarra Turkiako hondartza baten agertu zen hilda, eta gertaera hark eman zidan zer pentsaturik handiena. Gizarte bezala zer ari ginen egiten galdetzen nion neure buruari.

Oinarrian, antzekotasunik ikusten al diozu itsasoko migrazioari eta gainerako migrazioari?

Zenbait puntutan badago parekatzea, baina itsasoko migratzaileek bi *handicap* dituzte nire iritziz. Alde batetik, asko beste arraza batekoak dira; ezetz dirudi, baina arrazista hutsak gara. Bestetik, erlijioa dago tartean. Gurean, egun, sinesten ez duen jende asko badago ere, oraindik eragina izaten jarraitzen du erlijioak. Itsasoko migratzaileekiko portaera ez dute onartzen askok oraindik, eta niretzat erlijioak hori badu bere eragina. Kultura desberdineko jendea da, eta bizitzeko portaera eta ohitura desberdinak dituzte. Jendeak badu oraindik orain horiekiko betoa.

Errefuxiatuen gaiak konponbidea izan dezakeela uste duzu. Nola konpon daiteke afera?

Konponbidea sinplea da. Ulertu behar dugu ama lurra guztiona dela. Mugarik ez litzateke egon beharko, baina hori gauzatzeko, gizarte guztiak errotik aldatu beharko luke. Pikarokeria alde

guztietan dago, inguruan bertan ere bai. Batzuek esaten dute migratzaileak guri dirua kentzera datozela hona. Baina zenbat herritar ari ote dira Gizarte Segurantzari iruzur egiten, langabezia kobratuta lanean baino hobeto daudelako? Hori egiten duen jendea dagoela ikusita, migratzaile batzuek ere gauza bera egiten dute. Ez dira desberdinak beste lurralde batetik datozelako.

Mugak aipatu dituzunez, egun zenbait ideologiatako alderdiek inoiz baino sutsuago defendatzen dituzte mugak. Italian, esaterako, eskuin muturrak gobernatuko du datozen urteetan...

Ukrainara eta Errusiara begiratu besterik ez dago. Italian eskuin muturrak gobernatuko du, eta dardarka gaude. Kezka sortu da ISHn, eta gainera, ikusten da indarra hartzen ari den joera dela. Berri hori, gainera, ez da migratzaileentzat soilik txarra, besteontzat ere halaxe da. Orain ohartuko gara, beharbada, herritarren eskubideak nola errespetatzen dituzten horiek, eta akaso, balioko du migratzaileak nola tratatu izan ditugun ikusteko.

Gai ilunak saihesteko joera handia dago gizartearen. Nola erakar daitezke herritarrak horrelako proiektuetara?

Oso zaila da, ez dugu-eta nahi albiste txarrak jasotzea. Kezkarik gabe bizitzea nahi du egungo herritarrak, norbere konfortean sartuta eta kanpoko erasorik gabe. Norbere buruari eskatu behar zaio horrelako proiektuetara batzeko. Nik mila gauza kontatu diezazkioket pertsona bati, baina hura nik esandakoa entzuteko prest ez badago, alferrik da. Gai ilun horiekin ere gauza bera gertatzen da. Zer gertatzen ari den entzuteko prest ez badago, jendeari ez zaio mezua behar bezala iritsiko.

Gakoa, beraz, entzutetik ekintzetara pasatzea da. Jendeak lehen orain baino errazago egiten al zuen boluntario izateko urratsa?

Noski, ekintzara igarotzea da gakoa. ISHren proiektu handiena *Aita Mari* itsasontzia da, jendeari ikaragarri gustatzen zaio, baina hortxe falta da eskulan gehien. Oso kurioa da. Beste adibide bat ematearren: Alegian [Gipuzkoa] ari naiz irakasle lanetan, eta ikasgai batean auzolana ari gara lantzen. Alegia herri txikia da, eta baserrietatik-eta ezagutzen dute zer den auzolana, baina gazteak harrituta gelditu ohi dira beren aiton-amonei garai batean auzolana nola egiten zuten galdetutakoan. Garai batean, errepide bat garbitzera joateko gelditzen baziren, auzo guztiak parte hartzen zuen lan horretan;

guzti hori, baina, galdu egin dugu. ISHren kasuan ere, auzolanak indar handia izan du. *Aita Mari* itsasontzia eskuratu zutenean, boluntarioen artean garbitu eta konpondu zuten. Espiritu berezi bat sortu zen horren bueltan, eta grin horrek mantendu du bizirik proiektua.

Elizan ere murgilduta zaude. Zein da zure egitekoa Andre Mariaren Jasokundeko parrokian?

Parrokiko taldean sartzeko modua oso kurioa izan zen. Alabari katekesian hastea egokitzen zitzaion, eta besoetan lau hilabeteko beste haur bat nuen. Lide Lizarralde katekistak bota zidan katekesira batzeko amua, eta nik irentsi egin nuen. Orduan zera pentsatu nuen: kristaua naiz, ez zait gustatzen Elizak orokorrean nola funtzionatzen duen, eta beharbada, barrura sartuta aldaketak proposatzeko aukera izango dut, edo gutxienez, Elizak nola funtzionatzen duen ikusteko modua. Katekista hasi nintzen, eta bitarte horretan etorri zen Felix Azurmendi erretorea, hain justu, duela hamar urte. Gehiago inplikatu nintzen, eta egun, parrokiako erabakiak hartzen dituen talde irakunkorreko kidea naiz. Gainera, pastoraltzako kontseiluan katekesiko ordezkaria ere banaiz.

Elizak ba al du errefuxiatuen kontuan egiteko jakinik?

Beste guztiok bezala, Elizak ere asko du egiteko. Are gehiago, egiten duela nabarmendu nahiko nuke. Azkoitiko Parrokiako taldeak, esaterako, sensibilizazio egitasmoak antolatuta ditu, baita diru bilketak ere; parrokia oso sartuta egon da gai horretan. Elizak, egungo Aita Santuarekin, pauso handiak eman ditu bide horretan. Lampedusako [Italia] errefuxiatuen erreserbara sinbolo bezala joan zen Aita Santua, jendarteari han eta haiekin egon behar zela esatera. Gainera, saiatu da politikari eta estamentu desberdinekin elkarriketak egiten, igarobide eta korridore humanitario seguruak bideratzeko asmoz. Hain zuzen, Aita Santuak korridore humanitarioa egin eta jendea Vaticanora eramane zuen.

Geroz eta jende gutxiagok sinesten du erlijioan. Nola ikusten duzu Elizaren egungo egoera?

Sinodalitate prozesuan, eliztarrok elkarrekin bidea nola egin ari gara aztertzen, eta asko hitz egin izan dugu horri buruz. Guztiok kristauak ginen tradizio batetik gatoz, baina, egun, aukera gehiago daude. Kristautasuna bide bat da; bide bat da Jesusi jarraitzea. Elizak berak esan izan du, eta guztiz jakitun da, gauza batzuk gaizki egin dituela eta orain egindako horren guztiaren ordaina ari dela jasotzen. Ondo ere egin ditu



gauzak, ordea, hala nola behar dutenei laguntzen eta ikastolen zein kooperatiben sorreran parte hartzen. Gaur egun, guztiok guztiaz jakin dezakegu, eta jendeak zalantzan jartzen ditu Elizaren zenbait gauza. Tontakeriak alde batera utzita, Elizak bere oinarritzko mezua ematen jarraitu behar du, eta hori Jesusek zioena da: "Lagun hurkoa maita ezazu zeure burua maita duzun bezala, eta bizi zaitez maitasunez". Mezu horretara jo nahi du Elizak. Mezu hori guztiok sinetsiko eta beteko bagenu, bestelako mundu batean biziko ginateke.

Jendaurrean gero eta paper handiagoa dute Elizako emakumeek.

Azkoitiko Parrokian emakume asko egon izan da, eta hala dago egun ere. Urteetan zehar, herriko parrokian ezkutuko lan handia egin dutenak emakumeak izan dira: parrokia garbitzen, apaintzen, katekesian... Gizartea aldatu egin da eta Eliza ere eraldatzen ari da; izan ere, Eliza emakumea bistaratzen ari da. Halere, adineko emakumeei oraindik kostatu egiten zaie jendaurrean bistaratzea; agertzen direnak belaunaldi gazteagoetakoak izaten dira normalean.

Nola deskribatuko zenuke gaur egungo gizartea?

Geroz eta gehiago ari gara ixten, individualismora jotzen, eta hori ezin dut jasan. Hori ez dator nire

izaerarekin bat, lurrean kolektibo bat izateko gaude eta. Festa egitea guztioi gustatzen zaigu, baina uste dut badagokigula inguruan zer dagoen begiratzea ere. Umeak ginen garaian, igandeetan dotore jantzi eta mezetara joaten ginen, pintxoren bat jaten genuen kalean eta aiton-amonen etxera joaten ginen familiarekin bazkaltzera. Gaur egun, ez dugu astirik familia elkartzeko.

Zerk gertatu beharko luke mundu honetan zuk boluntariotza alde batera uzteko?

Gertatzen dena gertatuta ere, laguntzeko modua ikusten dudanean laguntzen jarraituko dut.

Jendeak inoiz boluntario izatea zer den probatuko balu, ikusiko luke gauza txikietatik zenbat gauza aberasgarri jasotzen diren. Norberak emandako guztia bueltan jasotzen da boluntario lanean, eta probatutakoan, segitzeko grina sortzen da. Halere, bada jendaurrean agertzeari erreparoa dionik ere. Behin hala esan zidan batek: "Bizitza pelikula bat bezala da; batzuk aktore nagusiak dira, eta besteok harmailetatik egoten gara haiei txalo egiten". Harmailetatik txalo egiten duenak, ordea, ezin du kexatu edo ez luke kexatu beharko gauzak oker daudelako. Gauzak aldatu nahi baldin badira, parte hartu eta lagundu egin behar da gizartean. ■■■

'Zer gera pantailak itzalita?'



KARI ALBERDI

Igande gauerdia da logelan, eta ohean emandako bira bakoitzeko zure buruak bi eman ditu. Galdera asko eta erantzun gutxiko gaua dirudi gaurkoak. Zalantzek eskaintzen ez dizuten konpainiaren bila luzatu duzu besoa ohe ondoko mahaira. Azken hogeita hamar segundotan ez dizu inork mezurik bidali, ez du inork ezer berririk igo Instagramera, ez dago txio berririk Twitterren. Baina badaezpada pantailara lotu dituzu berriro begiak, beste aldean aurkitutakoak burua askatuko dizulakoan. Sareek gehiago korapilatu dizute barrena, eta blokeatu berri duzun pantailaren antzekoak dituzu pentsamenduak: ilunak.

UNICEFen ikerketen arabera, Euskadiko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasle nerabeen %45,9 bakarrik ez sentitzeke dago Internetera konektatuta, eta %24,7k bakardadea sentitu du bertara konektatzean. Paradoxikoa dirudi, baina amaierarik gabeko ziklo baten oinarriak dira biak. 2020ko azarotik 2021eko martxora, 11-18 urte bitarteko 4.597 parte hartzaile izan zituen *Teknologiaren eragina nerabezeroan: harremanak, arriskuak eta aukerak* ikerketak, eta datuak

online galdetegi baten bitartez bildu ziren ikastetxeetako ikasgeletan bertan. Partaideen %46,4k egunean bost ordu baino gehiagoraz erabiltzen du Internet asteburuetan, eta %31k, lanegunetan. Zenbakiek diotena oraingoan hitzek errepikatuko dute: arazo bat daukagu esku artean.

Esku artean dugun arazoa mugikorra bera dela ondorioztatzea gaiaren irakurketa hutsalegia litzateke. Gure konponbidea jarrera debekatzaile batera mugatzeak arazoaren mugak hedatuko lituzte. Hedatzen jarraitzen duen mendekotasun digitalaren erroari ez begiratzeak itsutu egingo gaitu.

Pantailarekin itsututa gauden moduan Internetaren hasierarekin hazi garenok, nerabeen sareko jarrerak Whatsappez gaitzesten ditugunok, TikTokeko dantzak Instagramez kritikatu ohi ditugunok, Tuenti eta Fotolog

bezalako plataforma zaharrak nostalgia berriarekin gogoratzen ditugunok. Jaso ez dugun hezkuntza digitalaren ondorio fisikoak dira gorago zerrendatutako datuak. Iraganean Internetaren kontrolrik gabeko erabilerari ateak ireki izanak gainezka egin du gaur egun. Ondorioak ondorengoen sorbaldetan, eta eskuetan, eta buruetan daude jada.

Merina Gris taldearen *Zerua orain* diskoko 90 kantak, beste hainbat labankadaren artean, pantailak itzaltutakoan zer garen galdetzen digu. Pantailarekin batera geu itzaltzen ote garen susmoak ditut batzuetan, eta susmoak baieztatu ohi ditut besteetan. Konexioaren deskonexioak blokeatu ote digu hasierako pantaila?

Garuneko kableek huts egin aurretik hezkuntza sareak konpontzea tokatzen zaigu. Sare sozialetako profilek gure izaera jan aurretik ego-gosearekin amaitzea tokatzen zaigu. Datozen belaunaldiei begietara begiratzea tokatzen zaigu, sorbalda gainetik egin beharrean. Esku arteko arazoak eskutik helduta konpontzea tokatzen zaigu. Pantaila itzaltzean piztuta jarraitzea tokatzen zaigu. ■

**PANTAILAREKIN
BATERA GEU
ITZALTZEN OTE GAREN
SUSMOAK DITUT
BATZUETAN**



"BIDE ERTZEKO AZTARNAK... AIZPURUTXO"
TEKNIKA: AKUARELA ETA KOLORETAKO ARKATZAK

"Legez bermatu behar dugu edukiak euskarazkoak izatea"

IORITZ GONZALEZ PANTAILAK EUSKARAZ MUGIMENDUKO KIDEA

Ikus-entzunezko edukietan euskarak duen presentzia "anekdotikoaz" eta horren ondorioez kezkatuta, Pantailak Euskaraz mugimendua sortu zuten hainbat eragilek 2020an, eta euskarazko eskaintza digitalak bermatu ditzaten, erakundeak mugiarazten dihardu ordutik. Lantaldeko kidea da Ioritz Gonzalez azkoitiarra. Testua eta argazkiak: **Ane Olaizola**.

Ogibidez zientzia irakaslea da Ioritz Gonzalez (Azkoitia, 1980), baina euskararen erabileraren gaiak larritu egiten du. Gazteen euskara maila gero eta baxuagoa dela sumatzen du egunerokoan; bestela esanda, uste du gaztelaniaren eragina zuzena dela haien euskararen. Egoera hori ikus-entzunezko sektoreak hartu duen joerarekin lotu du azkoitiarrak: "Gazteei pantailetatik asko iristen zaie egun, eta handik jasotzen duten guztia erdarazkoa da". Egoerari buelta eman nahian ari da lanean Pantailak Euskaraz.

Ikus-entzunezkoen munduan euskarak duen presentzia eskasarekin arduraturik dauden eragileen mugimendua da Pantailak Euskaraz. Zein da egoera? Euskararen presentzia ez zelako pantailetan ikusten, ildo berean ari ziren lanean ikus-entzunezkoen sektoreko hainbat plataformatako eta taldetako eragileak. Netflix Euskaraz, Disney Euskaraz edota Zinemak Euskaraz plataformetako bozeramaileak bildu egin ziren, eta Pantailak Euskaraz taldea sortzea proposatu zuten 2020an. Haien kezka handiena zen euskarazko oso eduki gutxi daudela; batetik, oso

gutxi sortzen delako; eta bestetik, oso gutxi bikoizten delako. Zentzu horretan, taldeak azterketa txiki batzuk egin ditu, eta konturatu gara duela 20-30 urte baino eduki gutxiago bikoizten dela; aldiz, ikusten dugu haurrek eta gazteek askoz gehiago kontsumitzen dituztela ikus-entzunezkoak. Mundu digitalean ia anekdotikoa da euskararen presentzia, eta behar-beharrezkoa ikusten dugu horri buelta ematea. Izan ere, haurren zein nerabeen erreferente guztiak erdaldunak dira, eta horrek eragin zuzena du haiengan. Uemak egindako kale erabileraren azken datuek ere hori baieztatzen dute. Finean, umeei zein gazteek nonbaitetik jaso behar dute jolasteko zein beren hizkera informala eratzeko, eta helduengandik zerbait jasoko dute, baina pantailetatik asko iristen zaie egun. Pantailetatik jasotzen duten guztia erdarazkoa da.

Ikus-entzunezkoetan euskararen presentzia urria dela diozue. Zein dira datuak?

Streaming plataformak aztertzen ditugu, hala nola Netflix eta Disney, eta tartean behin datuak argitaratzen ditugu sare sozialetan. Esaterako, plataforma nagusietan 2021ean eta 2022an euskarazko zenbat eduki egon diren zenbatu



dugu: Filmin plataforman, euskarazko edukien kopurua 65etik 83ra igo da urtebetea; Netflixen, euskarazko hiru eduki izatetik 40 izatera igaro dira; Amazon Primen, bitik 44ra igo da euskarazko eduki kopurua; Rakutenen, aldiz, euskarazko edukirik ez zegoen iaz, eta aurten hamazazpi daude; eta Disneyn oraindik ez dira hasi horretan. Badirudi plataformak pixka bat mugitzen hasi direla, eta hainbat arrazoi egon daitezke horretarako. Noski, horietako bat da egoeraz jabetuta dauden Pantailak Euskaraz bezalako taldeak sortzen ari direla. Plataforma pribatuak dira horiek, ordea, eta guk ezin dugu beren interesen arabera aritu. Egiturazko aldaketa eman behar da ikus-entzunezkoetan, eta legez bermatu behar dugu edukien gutxieneko bat behintzat euskarazkoa izatea. Bestela, plataformen interesen arabera egoten jarraituko dugu, eta modu horretan, gaur-gaurkoz egoera ona izanda ere, baliteke bihar ezer ez egitea erabakitzea. Plataformek ez ezik, kate publikoek ere eskaini behar lituzkete gutxieneko eduki batzuk euskaraz; ez soilik euskara bermatzeko, baizik eta euskararen zein erdararen arteko berdintasunerantz jotzeko. Euskal Telebistak, esateko, arlo horretan asko hobetu dezake.

Ikus-entzunezkoen sektorea irauli dute *streaming* bidezko plataformek. Zenbaterainoko eragina izan dute horiek kontsumo ereduan?

Zaila da hori neurtzea, aldagai asko baitaude. Baina duela gutxi ikerketa baten emaitzak kaleratu zituzten, eta azterketa haren arabera, gazteek gehien kontsumitzen zuten plataforma Netflix zen; %80k kontsumitzen zuten. Datuak lortzea oso zaila da, baina ziur nago plataformek eragin zuzena dutela. EHUK egindako beste ikerketa baten arabera, gazteek oso-oso gutxi kontsumitzen dute EITB. Ez dakigu zenbakiak jartzen, baina guztiz erabakigarria da euskarak plataformetan duen presentzia, euskarri horiek erabiltzen dituztelako gazteek.

Berria egunkariak oraintsu jakinarazi duenez, ETB1ek azkeneko lau hilabeteetan ez du pelikula bakar bat ere eman, ETB3k haurrentzako hainbat film eman ditu, eta aldiz, ETB2k 130 pelikula eskaini ditu, guztiak gaztelaniaz. Zer irakurketa egiten duzu?

Pantailak Euskarazen irakurketa argia da: gaztelaniari askoz ere garrantzia handiagoa ematen zaion joera nabaria da. Sumatzen dugu audientziak eragin handia duela, eta horrek mugitzen duela ETBren joera. Aldarrikatzen duguna, ordea, zera da: euskararen

normalizaziorantz joan behar baldin badugu, ETB1ek ETB2k adina garrantzi izan behar duela, ekonomikoki zein edukien aldetik. Dirua nora bideratzen den jakitea lausoa izaten da askotan, baina ez da pertzepzio hutsa gaztelaniazko saioetan euskarazko zenbaitetan baino askoz ere indar gehiago egiten dutela. Ikusi besterik ez dago ETB1en audientzia ordu nagusietan zer saio izaten diren. Edukien kalitatea ere aipatzekoa da, eta arlo horri lotutako azken datuak negargarriak dira. ETBk ez badu euskarazko filmik ematen... Guztia esaten du horrek. Ezinbestekoa da kalitatezko bikoizketara ere dirua bideratzea. Izan ere, nork ikusiko du mundu guztiak dagoeneko gaztelaniaz ikusita duen eta duela hamar urtekoa den film bat euskaraz? Ez da batere ikusiko. Superproduktzio batzuk sistematikoki euskaraz estreinatu beharko lirateke, ahal den heinean behintzat. Duela 30 urte ETBk apustua egin zuen eduki batzuekin; esaterako, guztion oroimenean daude *Dragoi Bola* marrazki bizidunak. Orain ez dago halakorik; gazteek ez dute erreferentziarik Euskal Telebistan.

Edukien kalitatea aipatu duzu. Euskaraz dagoen eskaintza gainontzeko kateetako programazioarekin lehiakorra al da?

Ez dugu ez denik egiten esan nahi, baina askoz gehiago egin daiteke, eta aipatutako filmen datua oso adierazgarria da. Nahi edo ez nahi, ETB1 eta ETB2 konparatu egiten ditugu, eta esan bezala, gaztelaniazko kateko programazioan euskarazkoan baino askoz ere indar gehiago jartzen da.

Euskarak ikus-entzunezkoetan duen presentzia zuzenean dago lotuta bikoizketarekin. Euskal Herrian bikoizketan lan egiten duten profesionalak bi elkartetan daude bananduta: Bieuse eta EHBE elkarteak. Greban ari dira biak. Egon al da aldaketarik alor horretan?

Horietako bat, Bieuse, Pantailak Euskararen parte da, eta ez, ez da aldaketarik eman bikoiztaileen artean. Egoera negargarria da: lehen, eduki eta aukera askoz gutxiago zegoenean, bikoizketak gehiago funtzionatzen zuen. ETBk, ordea, erabaki batzuk hartu zituen gero, eta joera aldaketa egon zen. Horrek eragin zuen bikoiztagileen elkarteak grebara jo izana, eta gaur egungo egoera da guztiak langabezian daudela. Gainera, bikoizten den gutxi hori, ikusi egin behar da nola egiten den: zein enpresari ematen zaion lan hori edota langileek zer baldintzatan lan egiten duten. Azken urteetako bidea, zentzu horretan, oso desagokoa

izan da, eta horren isla da bikoizketa lan oso gutxi eta kalitate baxukoak egin izana.

Bestalde, Espainiako Kongresuak ikus-entzunezkoen lege orokorraren proiektua onartu zuen maiatzean. Pantailak Euskarazek salatu zuen neurri horrek hizkuntza gutxituen berdintasuna ez duela bermatzen. Zergatik?

Lege hori aurrera atera ahal izateko, Katalunian dezente estutu zuten Espainiako Gobernuak. Eskatzen zuten legeak euskarazko, katalanezko eta galegozko gutxieneko eduki kopuru jakin bat berma zezala ikus-entzunezkoetan. Espainiako Gobernuak, printzipioz, ados agertu zen proposamenarekin, eta legea bere horretan aurrera aterako zela zirudienean, bira bat emanda onartu zuten; soilik Espainiako estatuko plataformei zuzenduta atera zuten aurrera legea. Beraz, legeak, esaterako, Movistar plataformari eragiten dio, baina ez jendeak gehien kontsumitzen dituen Netflixi, HBOri edota Amazon Primeri. Ez zen hori guk aldarrikatzen genuena. Praktikoki, ezerezean geratu da legea. **Erakunde publikoen zer-nolako babesa du Pantailak Euskarazek?**

Momentuz, txikia. Harreman batzuk izan ditugu, eta mugimendu batzuk egon dira, baina oraingoz, ezer gutxi.

Katalunia aipatu duzu. Han, alderdi politikoak zein eragileak ari dira plataformek edukiak katalanez eman ditzatela eskatzen.

Nahi edo ez nahi, Katalunia beti erabiltzen dugu konparatzeko ispilu moduan. Katalunian, gure aldean, gauzak argi dituztela sentitzen dugu, bai, behintzat, estamentu publikoaren zati bati dagokionez. Publikoki esan dute askoz ere gehiago egin behar dela, presio gehiago egiten dute eta jendeak askoz ere kontzientzia handiagoa du. Hemen, ez dugu halakorik sumatzen. Egia da Katalunian gu baino biztanle gehiago direla, baina pauso bat aurrerago doaz.

Ba al duzue katalanekin harremanik?

Bai. Taldekide batek harreman zuzena du hango eragileekin, eta une zehatzean elkarri laguntzen ibili izan gara.

Uemak orain dela gutxi kaleratu ditu gaztetxoek eta nerabeek ikus-entzunezkoen kontsumo datuak.

Azterlanak egoera makurra azaleratu du euskarazko kontsumoari dagokionez, erdararen oso azpitik baitago. Datuok kezkatzen al zaituzte?

Bai. Hilabeteak egon gara emaitzen zain, eta datuek aipatutako joera negatiboa erakutsiko zutela espero genuen, baita euskararen



**"LEHEN, EDUKI ETA AUKERA
GUTXIAGO ZEGOENEAN, BIKOIZKETAK
GEHIAGO FUNTZIONATZEN ZUEN"**

**"PLATAFORMA ETA KATE PUBLIKOEN
GUTXIENEO ZENBATEKO BAT
EUSKARAZ EMAN BEHARKO LUKETE"**

**"ESTAMENTU PUBLIKOEN BABESA
FALTA ZAIGU, ETA HORI SUMATZEN
DUGU FALTAN"**

arnasguneetan ere. Orain, intuizioa egia bihurtu da. Datuetan ikus daiteke erreferentzia erdaldunek zer eragin duten. Horixe da egiten dugun irakurketa, eta horregatik eskatzen dugu neurriak lehenbailehen hartzeko.

Azterketaren emaitzak aurkezterakoan, zera ondorioztatu zuen Uemak: "Arlo estrategikoa da ikus-entzunezkoena, eta, beraz, hizkuntza politikaren ikuspegitik ezinbestekoa da benetako erabaki sendoak hartzea arlo honetan".

Alde batetik, bertako telebista publikoak euskara, edukien kalitatea eta bikoizketa indartu behar ditu, eta plataformei legez exijitu behar zaie euskarazko edukiak sortzea. Horrek, ordea, erabaki sendo bat hartzea eskatzen du; aldaketa bat egitea hizkuntza bermatzeko, eta momentuz, ez dugu halakorik ikusten. Ez dakit ikus-entzunezkoak garrantzitsuak ez direla uste duten edo ez duten nahi horiei garrantzia ematerik, baina aldaketa politikoa behar da, eragin negatibo horiek dagoeneko begi bistakoak direlako, hizkuntzaren erabilerari lotuta, batez ere.

Ogibidez irakaslea zara, eta nerabeekin egiten duzu lan. Erdarak haiengan duen eragina antzematen al duzu egunerokoan?

Hizkuntzaren erabileran, bai. Zientzia irakaslea naiz, eta egunero aritzen naiz hizkuntzagatik ikasleekin borrokan. Erabiltzen duten euskara gero eta maila baxuagokoa da, eta gaztelaniaren eragina zuzena da haien eguneroko euskaran. Esaterako, hitz erdaldun asko sartzen dituzte batere beharrik gabe, eta gisa horretan, herrietan beti erabili izan diren hitzak baztertzen ari dira. Horrek gure betiko hizkera galtzea eta kanpokoa sartzea ekarri du, euskaraz ari direnean. Nahi gabe egiten dute, ez dira kontziente eta ez diote garrantzirik ematen; hori da tristeena. Ziurrenik, guri ere gauza bera esango zigun gure aurreko belaunaldiak, baina esango nuke azken urteetan joera asko indartu dela: egun erdarak duen eragina askoz ere handiagoa da.

Urtebete baino gehiago da Pantailak Euskaraz sortu zenuela. Orain artekoaren zer balorazio egiten duzue?


Era guztietako iritziak egongo dira, baina nik nahiko balorazio positiboa egiten dut. Taldean oso pertsona jantziak daude, eta gizartean eragin dugula uste dut; estamentu publikoekin kontaktuak izan ditugu, eta euskalgintzako taldeen eta ikus-entzunezko arloko pertsona ezagunen babesa jaso dugu. Dena den, erakunde publikoen alorra lantzea falta zaigu; horixe sumatzen dugu faltan. Uste dut jendea kontzientziatu dela, eta orain arte jabetu gabe zegoena hasi dela gaiak duen garrantziaz konturatzen. Gure lanaren fruituak ikusten ari direla esango nuke, horrek ez du esan nahi, ordea, lanean jarraitu behar ez dugunik. ■



NON DAGO ZAKELMARI?



Urriko Maxixatzen aldizkarian **Zakelmari** non ezkutatuta zegoen asmatu behar zen: 29. orrialdean zegoen ezkutatuta. Maxixatzeneko bazkide guztien artean zozketa egin ondoren, **Sheila Orbegoitzo** bazkideari egokitu zaio Herrixen merkataria elkarrean emandako **50 euroko erosketa bonoa**. Abenduan, Ogi Berri okindegiaren zortzi lagunentzako tarta zozkatuko du Maxixatzenek Zakelmari aurkitzen dutenen artean. Bidali erantzuna azaroaren 18a baino lehen, Kultur Etxeko postontzira edo erredakzioa@maxixatzen.eus helbide elektronikora.



*Komertzio
txiki
herrixen
esentzia*



IZAN KA IRAKUR ZALE!



EGIN BAZKIDE ETA ⁹/₃₀ EKO
DESKONTUA IZANGO DUZU
bazkide@ukt.eus • 943-81 38 41

MAXIXATZEN

LAGUNTZAILEA



Gobierno Vasco



"Soineko ederren atzean sufrimendu eta lan asko dago"

JENNY CALERO DANTZARIA

Dantzaria eta dantza irakaslea da Jenny Calero. ETB1en dantza txapelketa saio bat ikusten ari zela dantzariaren soinekoarekin maitemindu eta 17 urterekin hasi zen musikaren erritmora mugitzen. Kirol horrek alde onak eta txarrak dituela onartuagatik ere, oroitzen positiboekin geratzea nahiago du.

Testua: **Naia Arrizabalaga**. Marrazkia: **Gorka Larrañaga**.


Azkoitiko Born to Dance eskolako dantza irakaslea eta dantzaria da Jenny Calero (Azkoitia, 1989). 17 urte zituenean hasi zen horretan, eta kasualitatez piztu zitzaion horretarako grina, telebista saio bat ikusten ari zenean. "ETB1en dantzen inguruko saio bat ari nintzen ikusten, eta dantzariaren soinekoarekin maitemindu nintzen. Orduan, zera esan nuen: 'Nik ere soineko hori jantzi nahi dut' ". Esan eta egin; "guztiz murgildu" zen dantzaren munduan, eta irakasle bihurtu zen gero. Ordutik hona, buru-belarri dabil dantzaren bueltan, beste jardueratarako ia denborarik gabe: "Dantza eskola gauean itxi, etxera joan eta emanaldiak prestatzen aritzen naiz. Hurrengo goizean berriz eskolara edo entrenatzera joaten naiz".

Bere bizimodua dantzaren inguruan antolatzen du gaur egun, guztiz: "Eskolak ematen ari ez naizenean, entrenatzen jarduten dut, eta entrenatzen ez nagoenean, klaseak ematen". Berarentzat denbora gehiago izatea gustatuko litzaiokeen arren, dantzak ematen diona "esplika ezina" dela dio, eta horregatik jarraitzen du horretan, astegunean eta jaiegunetan, geratu gabe. Hala ere, deskonektatzeko uda baliatzen duela aitortu du, nahiz eta tokatu izan zaion abuztuan entrenatu beharra izatea ere.

Duela urte batzuk, Madrilen irakasle lanetan ere aritu izan zen. Gaur egun, ordea, Azkoitian soilik irakasten du, bi lekuetan aritzeak eskatzen zuen esfortzuaren ondorioz, aukeratu egin behar izan baitzuen. Dantza eskolan 100 pertsona inguru aritzen dira astero klaseak jasotzen, 6 urtetik 74 urtera artekoak. Askotariko dantza estiloak lantzen dituzte bertan: funkya, areto dantzak zein sevillanak, beste batzuen artean. Irakasle lanetan beste bi lagun ere aritzen dira Calerorekin batera; bata funkyko klaseak ematen ditu, eta besteak, berriz, sevillanak tarteka.

Azkoitia eta Galizia artean

Txapelketetan postu esanguratsuak lortu izan ditu Calerok, eta ondo gogoan du iaz Espainiako Txapelketan bigarren postuan sailkatu zela, dantza latinoen eta breaking modalitatean. Gaur egun, Pablo Tresgallo galiziarrekin batera lehiatzen da. Elkarrengandik banatzen dituen 700 kilometroek eta entrenamenduek zer dakarten izan du hizpide Calerok: "Aste batean Galizian ekartzen gara entrenatzeko, eta hurrengo astean, Azkoitian. Neke zein esfortzu handia eragiten du horrek, eta sarri bizitzeko astirik gabe geratzen gara". Bueltaka ibiltzeak dakarren neke fisikoaz gain, buruko osasunean ere eragina duela azpimarratu du azkoitiarrak, eta bide horretan, "barrurantz begiratzea oso garrantzitsua" dela





adierazi du, hori egin ezean, ondorioak "larriak" izan daitezkeelako sarri.

Txapelketak astebururo izaten diren arren, Calero ez da astero lehiatzen, faktore desberdinek eragina baitute lehietan parte hartzeko orduan: "Lanaren, norbere egoeraren zein baldintza ekonomikoen arabera lehiatzen dugu". Txapelketa horietako asko Mallorcan zein Katalunian egiten dira, baina Bilbon bertan ere bat edo beste egin izan direla adierazi du dantzariak. Lehiaketei dagokienez, Euskal Herrian egoera zaila dela adierazi du, eta horren ondorioz, txapelketetan lehiatu nahi duenak Euskal Herritik atera beharra daukala uste du. Azkoitiarra Euskal Herrian aritzen zen entrenatzen dantzan hasi zenean, baina gero atzerriko entrenatzaileekin –Esloveniakoekin zein Italiakoekin– hasi zen prestatzen. Ordutik, hara eta hona dabil, bai txapelketetan lehiatzen, baita entrenatzen ere.

Bestalde, kanpoan Euskal Herrian ohikoa ez den beste errealitate bat izaten dela esan du, dantzarienezko prestatzen dituzten *stand-etatik* hasita. Ondo gogoan ditu, esaterako, Parisera



lehiatzera joan zenean aurkitu zituen soinekoak, makillajea zein zapatak. Dantzariak argitu du Euskal Herri inguruko txapelketetan egoten diren postuen kantitatea ezin dela hangoekin konparatu, Frantzian dantzak "askoz ere indar handiagoa" duelako.

Oztopo nagusienetakoa txapelketetan lehiatu ahal izateko bikotea aurkitzea izan da azkoitiarrarentzat: "Gaur egun, geroz eta mutil gehiago animatzen diren arren, ia beharrezkoa izaten da bikotea aurkitzeko Euskal Herritik ateratzea". Dantzarako bikoteak zer ezaugarri behar duen galdetuta, berriz, Calerok erantzun du ezinbestekoa dela biek "helburu berberak" izatea. Bestalde, elkarri zor dioten errespetua "ikaragarria eta oinarrizkoa" dela azpimarratu du, dantzariak bere ibilbidean "denetarik" aurkitu baitu. Zailtasunak zailtasun, txapelketak uzteko "batere asmorik" ez duela dio.

Dantzaren kultura, apurra

Calerok Azkoitian duen dantza eskolan haurrak zein helduak ibiltzen diren arren, herrian nahiz

Jenny Calero

- **Adina:** 33 urte.
- **Ikasketak:** Dantzari lotutako zenbait ikastaro, instruktorearena edo teknikariarena esaterako.
- **Lanbidea:** Dantzaria eta dantza irakaslea.
- **Dantzaria ez banintz...** kriminologoa izango nintzateke.
- **Lanetik ateratzean gogoko dut...** entrenatzen ez nagoenean lanean nago, eta lanean ez nagoenean, entrenatzen.



Euskal Herrian dantzaren inguruko kulturarik ez dagoela nabarmendu du hark. Hala ere, Lola Indigoren edota Rosaliaren abestiek sortu duten *boom*-ak haurrengan eragin zuzena izan duela dio, eta fenomeno horiek tarteko, funky zein hip-hop modalitateek gorakada handia izan dutela azpimarratu du. Kirol dantzak, aldiz, egun interes gutxiago duela adierazi du.

Born to Dance dantza eskolako ikasleei dagokienez, 12 urtetik 15 urtera arteko hainbat ikasle lehengo urtean hasi ziren lehiatzen dantza koreografikoen modalitatean. Horiek taldeka lehiatzen dira, bikotea aurkitzea ez baita erraza

izaten haientzat ere. Dagoeneko, Espainiako Txapelketan zein beste txapelketa batzuetan lehiatu dira gaztetxo horiek, eta bere eskolako ikasleak lehiatzen ikusteak "poz handia" ematen diola esan du azkoitiarrak, baita oroitzapen asko gogora ekarri ere.

Zenbait haurrekin identifikatuta sentitzen dela adierazi du irakasleak, ume askok ere soinekoekin liluratuta ematen dutelako izena dantza eskolan. Halere, bere bizipenetatik abiatuta zera aitortu du: "Soineko eder horien atzean lan eta sufrimendu asko dago, guztia ez baita soinekoak bezain ederra". ■

GARAJE

AXIRI

**MARKA GUZTIETAKO AUTOAK
KONPONTZEN DITUGU**

Astelehenetik ostiralera:
08:30-12:30 / 14:30-19:00
Larunbatean itxita

Classic

San Joan, Axiri 13
20720 AZKOITIA (Gipuzkoa)

Tel. 943-85 04 11 - 674 09 19 62

OSKAR BERNAL GOMEZ
tailleraxiri@gmail.com



Itzala

Zein da itzal zuzena?



Margotu

Zeinen ederki heste artean jokasean! Zoriona erabatekoa izan dadin, eman lezaiozu koloreak inuldiari. Erabili margo hori, laranja, berde, gorri eta marroiak.




Eskularru hauen artean batak ez du parearik. Zein da?

pareak bai!

ALdeak

Bi garo hauek elkarren ispilu direla ematen du baina badira diferentziak. 9 dira guztira.





Arrotza

Basoen naturalki aurkituko ez genituzkeen sei elementu daude irudi honetan. Ikusten al dituzue?


Hizki-Zopa

Zopa honetan, berriaz, basoen naturalki aurkituko genituzkeen elementuak daude, irudian ere ageri dira eta 11 dira guztira.


SeiKo Sudokua



Jakingo duzu beharbada, baina hosto erariak osatzen duten geruza bigun horri ORBELA esaten zaio. Bete lauki zuriak hitz hori osatzen duten hizkien bidez (O, R, B, E, L eta A). Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta arak bakoitzeko.



Dadua



Bederatzi dada hauek best bat irudi zabalduarekin bat datoz, eta beste laurak ez. Zeintzuk dira onak? Asmatzea zaila baldin bazaizu, irudi zabaldua paper batean marraztu eta dadua muntatu.



Aise konturatuko zara zeintzuk diren txarrak eta zeintzuk onak.

Soluzioak ikusteko:
www.plazanbazan.eus/

Jorge Teixeira: "Sukaldaritzan gozatzen ere jakin egin behar da"

TESTUA ETA ARGAZKIAK: **NEREA URANGA**

Ikasgelako atea ireki, bera ikaskideei begira eta denak berari so. Guztiak isil-isilik. Azkoitira etorri berritako irudi horixe du gogoan iltzatuta Jorge Teixeirak (Oporto, Portugal, 1993). "Gazte etorri nintzen Azkoitira bizitzera, 14 urterekin. Aita, ama eta anaia, laurok etorri ginen, 2007. urtean. Floreaga ikastetxean hasi nintzen, DBH2. mailan".

Aldaketa "nahiko konplikatua" egin zitzaion. Hala ere, oztopoak oztopo, Azkoitira nahiko azkar egokitu zen. "Portugesa bakarrik nekien, baina gaztelania azkar ikasi nuen. Aldiz, euskara, gehiago kostatzen ari zait, baina horretan nabil". Lagun berriak "azkar" egin zituen, eta Azkoitiko Musika Bandara eta Anaitasuna futbol klubera batu zen. "Tronpeta jotzen nuen bandan, eta gustatzen zitzaidan, baina futbolarekin ezin nuen bateratu, eta banda utzi egin nuen".

Floreagan ikasketak bukatuta, ostalaritzan hasi zen lanean Teixeira, zerbitzari. "Beti erakarri izan nau sukaldaritzak. Etxean aitona nahiz gurasoak ikusi ditut kozinatzen. Txikia nintzenean, aitonak arroza tipularekin eta erramuarekin prestatzen zuen labean, eta ni beti gertu izaten nintzen, saltsan. Azkoitira etorritakoan, ama ostalaritzan hasi zen lanean, eta gero ni". Zerbitzaria zen arren, pixkanaka lan egiten zuen tabernako sukaldean murgiltzen hasi zela dio Teixeirak. "2019an, Herrixen elkarteak antolatutako IV.

Zakelmari pintxo lehiaketa irabazi nuen Orbela tabernarekin. Ondoren, 2020an, sukaldaritzaz gehiago ikasi nahi nuela eta, Karlos Argiñanoren Zarauzko Aiala eskolara joan nintzen sukaldaritzako masterra egitera. Segidan, Lasarte-Orian [Gipuzkoa] Martin Berasategiren jatetxean praktikak egiteko aukera eskaini zidaten". Hiru Michelin izarreko jatetxe batean aritzea "esperientzia ikaragarria" izan zen Teixeirarentzat. "Ardura asko eskatzen du han jarduteak eta gogorra da. Baina oso gustura ibili nintzen eta asko ikasi nuen. Azkenean, amets bat betetzea da Michelin izardun jatetxe batean jardutea; futboleko Lehen Mailan aritzearen parekoa da".

Ikasi, ikasi zuen kozinatzen, eta azken bi urteotan sukaldaritzako irakaslea ere bada Elkargunean. "Elkarguneko Xabik proposatu zidan helduei sukaldaritzako eskolak eskaintzea, eta iaz hasi nintzen horretan. Aurten, berriz, helduei eta haurrei ari naiz ikastaroa eskaintzen. Oso pozik eta gustura nabil, irakasteaz gainera, ikasi ere egiten dudalako".

Euskal Herrikoa eta Portugalgoa, bi herrialdeetako sukaldaritzaz ezagutzen du Teixeirak; bata etxean jaso du, eta bestea, lanean. Bakailaoa da Portugalekin lotzen den jakia, baina hango etxeetan arrozik ez da falta izaten: "Era askotara prestatzen da arroza, eta askotan, arroz saldatua kozinatzen da itsaskiekin, olagarroarekin,

untxiarekin, ahatearekin... Nik gustuko dut arroza kozinatzea, baita pasta ere". Gutxien postreak prestatzea atsegin du: "Agian, ez dudalako beste elikagaiekiko bezainbesteko interesa jarri izango da. Esnegainarekin egindako gozo oso ezagunak badira Portugalen: Belemgo opilak".

Sukaldaritzan lanbide gogorra izanagatik, gogokoa du gazteak. "Irakasten gozatu egiten dut, baita sukaldean lanean ere. Sukaldea ez da lana bakarrik, gozatzen ere jakin egin behar da". Sukaldaritzan tradizionalak inoiz ez du hutsik egiten haren ustez, baina pixka bat aurrera egitea nahi zuelako jo du sukaldaritzan modernora.

"Sukaldaritzan mundu bat da, gero eta zabalagoa. Saltsa horretan ibiltzea eta probatzea gustatzen zait".

Betikoari heldu bai, baina esperientzia berriei ekiteko prest dago Teixeira. Horregatik, egunen batean jatetxe propioa edukitzea gustatuko litzaiokeela esan du. "Hori, ordea, arduraz eta ondo antolatuta egin behar da. Iritsiko da horretarako unea. Orain, Azkoitiko taberna batek erronka berria eskaini dit, eta hori prestatzen eta antolatzen ari naiz". Portugalen du sorterrria, baina erabat azkoitiartu da. "Gustura joaten naiz Portugalera lagunak eta familiakoak ikustera, baina bi aste pasatu orduko Azkoitira itzultzeko desiatzen egoten naiz. Azkoitian dut nire bizitza". ■■■



Arrain-zopa legatzarekin

Osagaiak (4-6 pertsonentzako):

- Legatz txiki bat
- 24 ganba
- 24 txirla
- Tipula bat
- Azenario bat
- 2 porru
- Zopako ogiaren erdi bat
- Brandy kopatxo erdi bat
- Basoka erdi tomate naturala
- Ura
- Oliba olioak
- Gatza
- Oreganoa
- Perrexila

Prestaketa:

1. Legatza garbitu, dadotan moztu.
2. Legatzaren hezurak eta burua ontzi batean jarri egosten, perrexilaren adar batekin.
3. Ganbak zuritu. Buztanak, buruak eta azalak egosten jarritako saldari gehitu. Gatza bota eta kozinatzen utzi. Ondoren, salda iragazi eta gorde.
4. Tipula eta azenarioa, zuritu eta txikitu. Porruak garbitu eta txikitu. Segidan, zartaginean olio txorrotada batekin, hori guztia sueztitzen jarri. Behin gorrituta dagoenean, brandya bota eta flanbeatu.
5. Zopako ogia xerratzen moztu, eta labean 2-3 minutuz txigortu. Ondoren, dena txikitu eta gorritutako eta flanbeatutako barazkiei gehitu. Oregano goilaratxo bat gehitu eta sueztitu. Segidan, hori guztia arrain saldarekin eta tomate saltsarekin bat egin, eta egosten eduki 15-18 minutuan.
6. Irabiagailu elektrikoarekin dena irabiatu.
7. Txirlak gehitu ontzira. Gatza bota legatz dadoei eta zuritutako ganbekin batera ontzira gehitu. Txikituta perrexil pixka bat bota, eta 2-3 minututan egosten utzi. Ondoren, jalkitzen utzi.

On egin!

Bizirik jarraitu nahi duen herria

Kalitatea, gertutasuna eta konfiantza dira, besteak beste, Azkoitiko merkatariek eskaintzen dituzten ezaugarri nagusiak. Baina elementu horiez gain, herrian erosteak badu balio erantsia: Azkoitia eraikitzen eta bizirik mantentzen jarraitzea.



Hainbat dira herri batek bere esentzia eta nortasuna mantentzeko behar dituen elementuak. Tartean, bizirik jarraitu nahi duen edozein herrirentzat ezinbestekoa da tokian tokiko merkataritza, gertukoa zein kalitatezkoa, merkataritzak kaleen, auzoen eta komunitatearen motore izaten jarrai dezan. Kontsumitzen dugunaren jabe izateak aberatsago egiten gaitu. UNICEF erakundeak kontsumo arduratsuak dituen ondorio positiboak defendatzen ditu, ingurumena eta pertsonak aintzat hartuta, eta Azkoitiko merkatariorik gauza bera sinesten dugu. Horregatik, produktuen kalitatea, gertutasuna eta konfiantza eskaintzen dizkiegu azkoitiarrei.

Funtsean, herritarra da herria egiten duena, izan norbanako moduan nahiz taldean. Beraz, garrantzitsua iruditzen zaigu herritar guztiei merezi duten bezalako eskaintza eta tratua bermatzea. Horregatik, arretatsuak gara bezeroekin eta Azkoitiko herriarekin. Produktu soilak eskaintzeaz gain, herria osatzeko eta eraikitzeko dugun konpromisoari eusten diogu. Hainbat ekintza antolatzen ditugu urtean zehar, erosketak egiteko erraztasunak emateko eta gure bezeroa fidelizatzeko nahiz saritzeko. Bat egiten dugu Azkoitia eraikitzeko azkoitiar guztiok dugun konpromisoarekin, gure izatearen parte ere badelako.

Tokian tokiko saltokietan kontsumitzeak ez die soilik

merkatariei egiten mesede, herritarrek ere igarri ditzakete Azkoitian erostearen abantailak; izan ere, erosketak egitetik haratago, esperientzia oso bat da herrian kontsumitzea. Etxetik atera eta ezagunak dituzun aurpegiak ikustea, ezagutzen dituzun kaleetatik eta txokoetatik igarotzea, aspaldi ikusi ez duzun lagun batekin kafea hartzea... Nork ez du buruan herriko kaleetan bizi izandako halako une gogoangarrien bat?

Konfiantza da Azkoitiko merkatariorik eskaini ahal dugun beste abantailetakoa bat. Iruzurrak ez du lekurik gurean. Eskaintzen dugunaren salneurria eta kalitatea egiazkoak dira, ez du trikimailurik, eta gainera, zuk



zeuk egiaztatu dezakezu erosi aurretik.

Amaigabeko eskaintza

Sinesten dugun guztia bermatzeko askotariko eskaintza ziurtatzen diegu herritarrei, eta esku-eskura jartzen diegu eskaintza hori, nahi dutenerako. Horren erakusle da sektore desberdinetan banatuta dugun saltokien eskaintza zabala eta askotarikoa, produktu aukera paregabearekin. Nahiz berehalako beharra izan, nahiz kapritxoak izan, gure dendetan aurkituko duzu! Elikaduran (harategiak, arrandegiak, frutategiak eta okindegiak); ostalaritzan (tabernak eta jatetxeak); pertsonen eta etxeako ekipamenduetan (arropak,

oinetakoak, osagarriak eta kirol produktuak, teknologia, etxe tresnak eta abar), ongizatean eta edertasunean (ile-apaindegiak, fisioterapia zentroak, belar dendak, parafarmaziak, optikak eta lurrindegiak), eta nola ez, askotariko zerbitzuetan (tindategiak, aseguru etxeak, kopia dendak, paper dendak, eta abar) ere topa ditzakete herritarrek beren gustuko produktuak.

KONFIANTZA DA AZKOITIKO MERKATARIOK ESKAINI AHAL DUGUN ABANTAILETAKO BAT

Azkoitiarren aldeko gure jarrera argia da: berehalakotasuna eta erosotasuna nagusitu diren egungo gizarte honetan, betiko merkataritzaren aldeko apustua egiten dugu. Parez parekoa, gertukoa, fisikoa eta kalitatezkoa; herritarrei konfiantza ematen diena, eta aldi berean, herritarren konfiantza jasotzen duena; ingurumenarekin eta bezeroarekin arduratsua dena; esperientzia oso bat edukitzeko abagunea eskaintzen duena; ezagutzen ditugun bizilagunen gustu eta beharretara egokitutakoa. Azkoitiarekin eta azkoitiarrekin konpromiso sendoa duen komunitatea gara. ■■■

Letren erreinuaren zimendua

Irakurle talde berri bat jaio da Azkoitian. Joan zen ekainean egin zuten estreinako saioa, eta irailean egin zuten bigarrena; Iñigo Aranbarriren gidaritzapean egiten dituzte horiek. Espero gabeko arrakasta izan dute, eta bi hilabetez behin saio bat prestatzeko lanean dihardu taldeak.

Testua: **Anartz Izagirre.**
Argazkiak: **Anartz Izagirre**
eta Azkoitiko Irakurle
Taldea.

Irakurraldi batek sarritan ez du liburu baten ñabardura guztiak hautemateko betarik lagatzen; are gehiago, liburu bera beste behin irakurri, eta xehetasun gehiagoren berri jakiteaz aparte, liburu desberdin bat irakurri duzula pentsa zenezake. Tankerako sentsazioa utz dezake irakurle talde batean parte hartzeak. Simplea da saio horien dinamika: egun horretan landuko den liburuaren berri ematen dute aurrez –normalean, aurreko saioetan–, eta liburua irakurri ondoren, dinamizatzailerik baten gidaritzapean, lan horren gainean hitz egiteko eta iritziak trukatzeko abagunea sortzen da. Azkoitian ere bada halako talde bat, eta bi saio egin dituzte jada.

Urko Azpitarte (Azkoitia, 1982) eta Gema Lopez Las Heras (Azkoitia, 1989) dira Xabier Arenazarekin batera irakurle taldea martxan jarri zutenetako bi. Iñigo Aranbarri idazleari proposatu zioten saioak gidatzea, eta baietz esan zuen hark. Hala, joan zen apirilean, Geure Gelatik liburu azokan eman zuten Azkoitiko Irakurle Taldea sortzearen berri. Ez da herrian irakurle talde bat biltzen den lehen aldia; izan ere, aurrez, esaterako, Zilarrezko Arrantxoak deituriko taldea elkartzen zen Aizkibel liburutegian.

"Ikusten genuen Azkoitian bazegoela irakurle talde bat sortzeko beharra eta euskarazko irakurle dezente bildu ahal zituen potentziala", azaldu du Lopez Las Herasek. Eta datuek erakutsi dute interesa, behintzat, sortu duela taldeak. "Honekin guztiarekin hasi ginenean neu nintzen ezkorrena. Iruditzen zitzaidan gutxieneko jende kopuru bat elkartu behar genuela saioak egiteko, eta lortuko



**GEMA LOPEZ:
"IKUSTEN GENUEN
AZKOITIAN BAZEGOELA
BEHAR BAT IRAKURLE
TALDE BAT SORTZEKO"**

**URKO AZPITARTE:
"KULTUR EKITALDI
DEITZEN DITUGUNAK
HIRIBURUETAKO KONTU
ARI DIRA BILAKATZEN"**

ote genuen zalantzak nituen. Ez nuen uste lehen bi saioetan 15-20 pertsona inguru bilduko ginenik", azaldu du Azpitartek. Aurrez Donostiako irakurle talde bateko kide ere izana da hura, eta gutxi gorabehera han ere jende kopuru bera batzen zirela dio.

Lopez Las Herasek gehitu du, gainera, "jende oso diferentea" bildu direla orain arteko saioetan, 20 urte pasatxo dituen jendea zein 70 urte artekoak. Hori bai, gehienak emakumeak: "Denetarik juntatu gara, baina emakumeak gara gehienak. Hori irakurle talde askotan gertatzen da". Horrek asko harritu zuen Azpitarte: "Donostiako irakurle talde batean ibili nintzenean, asko jota, 30 urtez azpiko bi partaide egongo ginen. Beste guztiak 50 urtetik gorakoak ziren".

Nobelak bakarrik ez

Bi hilabeteen behin batzen da Azkoitiko Irakurle Taldea, eta momentuz, bi liburu landu dituzte: Uxue Apaolazaren *Bihurguneko nasa* (Susa, 2021) eta Iker Sanchok itzulitako Anton Txekhoven *31 ipuin* (Elkar, 2022). Aranbarri da liburuak hautatzearen arduraduna. "Badaki nondik tira", dio Lopez Las Herasek. Azpitartek dio hainbat irizpide kontuan hartzen saiatzen direla liburuak hautatzerakoan, eta besteak beste, literatur generoaren aldetik denak nobelak izan ez daitezen saiatzen direla, baita idazleen generoaren alternantzia bermatzen ere. Euskarazko itzulpenak ere bultzatu nahi dituzte, adibidez, eta horren erakusle da *31 ipuin* hautatu izana. "Jendeari falta zaio euskarazko itzulpenetara jotzea; errazago jotzen dugu erdarara", dio Lopez Las Herasek.

Saioetan parte hartzeko ez dago literatur aditua izan beharrik, antolatzaileen arabera. "Ez dago inondik inora maila jakin bat eduki beharrik. Iritziak, ikuspuntua eta abar partekatzeko gunea da", azaldu du Lopez Las Herasek. Azpitartek irakurketa praktika kolektiboa izan daitekeela aldarrikatu du: "Buruan izan ohi dugu irakurketa bakarkako ariketa bat dela, baina ondo irakurtzen ikasteko garrantzitsua da beste irakurleekin iritzi trukaketa egitea. Horretarako foro aproposa da irakurle taldea".

"Irakurzaletasuna sustatzeko eta partekatzeko asmoz" sortu dute Azkoitiko Irakurle Taldea, horretarako beharra ikusten dutelako; batez ere, euskaraz. "Iruditzen zait irakurketak gauza positibo asko ematen dizkigula irakurleoi; mundua ezagutzeko bide bat da", arrazoitu du Azpitartek. Lopez Las Herarentzat liburuei "beste ikuspegi batetik heltzeko aukera" sortzen da irakurle taldeetan: "Ikuspegi oso global bat lor daiteke, eta elkarrizketa oso politik sortzen direla iruditzen zait".

Azpitarterentzat garrantzitsua da halako taldeak Azkoitian ere egotea: "Kultur ekitaldi deitzen ditugunak hiriburuetako kontu ari dira bilakatzen, eta alde horretatik oso positiboa iruditzen zait Azkoitian irakurle taldea egotea". Lopez Las Herarentzat modu egokia izan daiteke irakurle taldea irakurzaletasuna sustatzeko: "Dena bat-batekoa izatera ohituta gaude, eta jendeak ez du denborarik hartzen liburu bat lasai irakurtzeko".

Aranbarrirentzat, "sorpresa"

Donostiako Alde Zaharreko Irakurle Taldea ez ezik, Azkoitikoa ere gidatzen du orain Iñigo Aranbarrik, eta antolatzaileen moduan, hark

ere ez zuen espero hainbeste jende juntatzea: "Bazegoen hutsune bat, eta iruditzen zait antolatzaileek asmatu dutela hutsune hori betetzen". Kopuruz, Donostian baino jende gehiago batu da momentuko saioetan Azkoitian, Aranbarriren esanetan. "Gainera, jende gaztea dago tartean, eta profila apur bat desberdina da. Askotan irakurle taldeetako saioetara jubilatzetik gertu dagoen jendea joaten da, eta Azkoitian espektrro zabalagoa dago".

Liburuak hautatzeko irizpideei dagokienez, azkoitiarra bat dator antolatzaileekin, eta euskarazko jatorrizko liburuak zein itzulpenak tartekatzen saiatuko direla dio, baita beti literatur genero bera ez hautatzen ere: "Prosa da nagusitzen dena, baina garbi dago beste genero batzuetara ere zabalik dagoela jendea".

Bestalde, Aranbarri argi utzi du irakurle taldearen saioak ez direla eskolak: "Lagunarteko giroa egoten da, eta inor ez da behartzen zerbait esatera. Inoiz liburua irakurri gabe ere etorri izan da norbait. Jende hori ere ongietorria da". Azkoitiko taldea "dinamikoa" dela gehitu du, eta "eroso sentitzeko giroa" sortzen dutela. Halako taldeen garrantziaz ere aritu da: "Irakurle txokoek dutena da liburu batekin sartzen zarela saiora eta beste batekin ateratzen zarela. Denon artean liburua osatu egiten dugu". ■



Azkoitiko Irakurle Taldearen lehen saioko irudia.



Hurrengo liburua: **'Hezurren erretura'**

Hil honetan egingo du Azkoitiko Irakurle Taldeak hirugarren saioa, eta dagoeneko zehaztu dute zein liburu irakurri behar den. Azaroaren 15ean, asteartea, izango da juntadizoa, Kultur Etxeko hirugarren solairuan, 19:00etatik aurrera. Miren Agur Meabe idazlearen *Hezurren erretura* izango da landuko duten liburua. Edonork izango du joateko aukera, eta zalantzaren bat duenak azkoitikoirakurletaldea@gmail.com helbide elektronikora idatz dezake.



Hilen herriak arima bizirik

Balio handiko eremuak dira hilerriak, gizakiari sentimendu ugari sorrarazten dizkienak, oro har. Joan zirenak oroitzeko gune dira, eta horrez gain, ondare artistiko handia zein historia aberatsa izan ohi dute; Azkoitikoa ez da salbuespena. Hilerriaren beraren ispilu, oraindik orain, kristautasunari lotutako errituak nagusi dira herrian hildakoari azken agurra ematerakoan. Argazkiak eta testuak: **Ane Olaizola.**



Panteoi ikusgarriak

Hainbat aldaketa izan ditu hilerriak. Esaterako, handituz joan da eremua; egun, hilerriaren erdian, belardian, norabide berean dauden harrizko hiliarrien azpian datza hilotz bakoitza, eta askotariko mausoleoek zein panteoiek inguratzen dituzte horiek. Ezbairik gabe, azken horiek dira ikusgarrienak, eta hilerriaren goialdean daude zaharrenak. Harrizko zein marmol zurizko panteoietan daude atseden hartuta hainbat sendia, eta hilerrian bira bat ematea besterik ez dago horiek duten balioaz jabetzeko.

Ongietorri mezu eta guzti

Izarraitzen magalean, Baldatxo baserriaren parean, dago herriko hilerri nagusia. 1809an egin zuten muino horretan aurreneko lurperatzea –ordura arte parrokian egiten zituzten–, baina eremu horrek aurretik ere bazuen historia, han egon baitzen aurrenetako parrokia: Baldako Santa Maria. Ate herri batek egiten die harrera hara doazenei, eta egun ezabatuta badago ere, antzinan, hilerriko bizilagunen honako mezu hau irakur zezaketen bisitari hilkorrek: "Laster esango dute zuetaz gaur zuek gutaz esaten duzuen: 'Hil ziren!'".



Pertsonaia historikoak

Arazoi bategatik edo besteagatik herriaren historian ezagun bilakatu ziren hainbat pertsonairen panteoiak, hiliarriak edota horma-hilobiak ere ikus daitezke Azkoitiko hilerrian. Haietako asko panteoietan daude lur hartuta, hala nola politikariak, kirolariak, arkitektoak, musikariak eta medikuak izan zirenak. Senitartekoak ez ezik, herriko apaizek, mojek edota Espainiako Gerran hil zituzten herritarrek ere panteoi bana dute. Irudian, Mariano Juaristi *Atano III.a* pilotari historikoaren eta haren sendiaren panteoia.



Balio artistiko handia

Arteari dagokionez, balio handiko hilerria da Azkoitikoa. Hainbat estilo nahasten dira han; esaterako, badaude estilo gotikoari jarraitzen dioten hainbat panteoi, eta erromanikoaren ezaugarriak ere begi bistakoak dira beste zenbait elementu arkitektonikotan. Hilerriaren aurretik, Baldako Santa Maria eliza egon zen bertan, eta haren arrastoak dira, esaterako, hilerriaren sarreratik gertu dagoen arku erromanikoa, 1200. urte ingurukoa, eta aurrerago dagoen ermita. Azken hilabeteetan hainbat eraberritze lan egin dituzte arkuaren zein neoklasiko garaikoa den ermitaren erretaulan. Ermita horren barruan dago, gainera, herriko aurreneko Amabirjinaren, Antiguako Amaren, eskultura, 1600 urte ingurukoa.



Krematorioa

Hilerriaren eremu berrienaren eta horma-hilobiek osatzen duten korridorearen artean dago krematorioa. Azken urteetan igo egin da hilotzak errausteko joera, eta Azkoitiko hilerrian dagoen krematorioan, bertakoak ez ezik, inguruko hainbat herritako biztanleak ere errausten dituzte, horietan ez dutelako zerbitzu hori.



Auzoetan ere bai

Baldatxokoa ez ezik, badira hilerrriak beste hainbat auzoetan ere; zehazki, Aizpurutxon eta Elosuan. Azken horretako hilerrria, baina, Bergarako udalerrriari dagokio. Aizpurutxon, San Agustin elizara iritsi baino lehen dago kokatuta auzo hilerrria. 1905ean eraiki zuten eliza, eta handik urte batzuetara egin zuten hilerrria. Aurretik, Elosuan lurperatzen zituzten Aizpurutxoko bizilagunak; senideek oinez garraiatzen zuten gorpua Aizpurutxotik Elosuraino, eta Elosura iristen zirenean, hango hilarrian uzten zuten hilotza, besteek atseden har zezaten edota elizara sartu aurretik prest egon zitezen.

Hildakoak oroitzeko eguna

Herritarrek urte osoan joan ohi dira hilerrira beren gertukoak bisitatzeraz, baina bada bereziki bizidunak hildakoez gogoratzeko diren eta hilerrria lorez janzten den egun bat: Santu Guztien eguna edo Domu Santu eguna. Gau Beltzaren biharamunean, azaroan sartzearekin batera, ospatzen da egun hori, eta duela hamarkada batzuk fededunek elizan otoitz egiteko aprobetxatzen bazuten ere, azken urteetan, Domu Santu egunean hilerrira joateko joera handia hartu dute herritarrek. ■■■



Ni ez noa



IRENE ELORZA

Azaroaren 9an jarri digute gure kaleaz edo auzoaz hitz egiteko hitzordua. Alkategai jeltzaleak kale gorrian (Jausoroko plazan) elkartu nahi gaitu gure arazoez hitz egiteko eta esateko dauzkagunak entzuteko. "Hitz egin nahi? Aurrez aurre!", dio banatu duten propaganda liburuxkak, gogo biziz. Udal hauteskundeetarako hilabeteak falta diren honetan, nonbait, baten bati oso ideia ona iruditu zaio herritarrengana hurbildu eta hitza ematea. Benetan ideia berritzaile, iraultzaile eta egokia da, espero dut ideia bikain horren sortzaileak merezi duen soldata jasotzea. Ariketa demokratiko paregabea egitera doaz eta azkoitiarrok eskerrak eman beharko genizkieke. Botoa emanda, adibidez.

Baina ni ez noa. Ez egon nire zain. Urte eta erdi badira Goiko Kaleko bizilagunek udalari bilera eskatu genionetik, eta ordutik birritan bakarrik elkartu gara. Kaleak dituen hainbat arazo txikiren eta handiren berri eman genien lehendabiziko topaketa hartan, iazko urrian. Handik bi egunera kalea mangeraz garbitu zuten. Eta kito. Bigarren bilera eskatu, eta aurtengo martxoan elkartu ginen berriz. Ez daukat ahazteko bilera hura.

Zinegotziak gure kalerako zeukan "ametsa, proiektua" partekatu zuen gurekin: kalearen erdian dagoen orubean etxebizitza pare bat eraikitzeak dira (auskalo zein), eta bien erdian igogailua egongo da. Han geundenetatik inork ez genuen ezer ulertzen (beno, agian Hirigintzako teknikariak bai). Orubea pribatua da eta Goiko Kaleko bizilagunei ez dagokigu haren erabileraz eztabaidatzea. Guk askoz ere arazo gehiago ditugu, eta horiek garrantzitsuagoak eta premiazkoagoak dira bertan bizi garenon eta gure kaletik igarotzen diren guztien ongizaterako. Izan ere, ehunka herritar igarotzen da gure kaletik egunero, Jausorora zein Altxibarrera joateko, anbulatoria, Zubillagara edo merkatalgune berrira joateko... Eta haiei ere eragiten die gure kalearen garbitasunak, trafikoak, segurtasunak eta egoera orokorrak. Baina zinegotzia balizko etxebizitza berriez arduratuta dago, proiektuak kalea goitik behera aldatuko duelakoan.

Bestalde, urteetan zaborraz gainezka egon den gure kaleko "puntu beltz" izeneko txokoari irtenbide bat emateko egin genion proposamena kostatuta onartu eta atera ginen bileratik, zein baino zein haserreago. Handik gutxira, bi jardinera birziklatu eta bertan jarri zituen udalak. Arazoa bukatu da, jendeak jada ez du bolumen handiko zaborrik uzten bertan. Gure kalea zerbait hobetu da. Urte eta erdiko jardunaren ondoren. ■■■

**BATEN BATI OSO IDEIA
ONA IRUDITU ZAIO
HERRITARRENGANA
HURBILDU ETA
HITZA EMATEA**



DISEINU LANAK

- PAPEREKO APLIKAZIOAK:
FLYERRAK, DIPTIKOAK,
KARTELAK, ETAB.
- KATALOGO PROFESIONALAK/
KORPORATIBOAK.
- AURKEZPEN KORPORATIBOAK.
- ESPAZIOEN SEINALITIKA.
- MERCHANDISING-A ETA PACKAGING-A.
- INFOGRAFIAK.

GUKA  ZERBITZUAK

Euskara mundiala da



MIREN ALBERDI

Neure buruari hitzeman nion Maxixatzeneko hurrengo artikuluak, honek alegia, kutsu positiboa izango zuela. Ez da erraza; begiratzeko dudak lekura begiratzeko dudak, haserretzeko hamaika arrazoirekin egiten baitut topo, eta haserretzeko ez bada, aldarrikatzeko. Baina ez, oraingoan ez nator horretara.

Oraingoan kontu politak esatera nator. Izan ere, euskaldun izatea nekeza bada ere, Ruper Ordorikak berak ere badaki euskaldun izatea polita ere badela, euskaldun izateak bere alde onak ere badituela; batzuetan Negu Gorriak antza izan dezakeen arren, euskaldun izatea harro egotekoa ere bada. Ez diogu alferrik heldu gure hizkuntzari gaurdaino. Oztupoak oztupo, bizirik darraigu.

Aurreko astean, ETB1eko erreportaje batean emakume bati entzun nion esaten euskara nahita galtzera iritsi zela, ez zizkiolako arazoak besterik ekartzen umea zenean. Ez da ahuntzaren gauerdiko eztula, Francoren garaian izan baitzen haur emakume hura. Gerora, ordea, Pasaia ikastolaren sortzaileetako bat izan zen. Horratx! Euskarak ez dizkio atsekabeak bakarrik ekarri.

Neure ibilbideari begira jarrita, euskarak bizipen hunkigarriak ekarri dizkidala garbi daukat. Euskara nire lanerako tresna da, baina hori baino askoz gehiago ere bada. Euskarak jende

mundiala ezagutzeko aukera eman dit, eta ematen dit. Mundiala bere zentzu guztietan: pertsona bikainak eta munduko hainbat lekutatik gure herrira etorritakoak.

Euskarari esker, euskaltegiko ikasleek elkar ezagutzeko eta harremanak egiteko aukera dute. Euskaragatik izango ez balitz, esaterako, Aleena pakistandarrak ez luke Txinako Li ezagutuko, ez lukete elkarrekin komunikatzeko aukerarik izango. Euskara zubia da, eta munduak elkartzen ditu.

Horrekin lotuta, *Nafarroako Hitza* irakurri nuen elkarriketa bat datokit burura. Duela bi urte eta erdi lotu zitzaion Yasmine Khris Maansri frantziarra euskararen bideari. Euskarak zer ematen dion galdetuta, honakoa erantzuten du Yasminek: "Aberastasuna ematen dit, eta ez bakarrik linguistikoa; ez da mugatzen horretara. Euskarak eman dit mundua beste ikuspuntu batetik begiratzeko aukera. Euskarak baditu berezitasun batzuk, eta berezitasun horiek tresna gehiago ematen dizkirate munduari begiratzeko. Kontzeptu batzuk oso euskaldunak dira, eta ez nituzke ezagutuko hizkuntza ikasten hasi ez banintz".

Finean, euskarak munduak lotzen ditu; munduari begiratzeko modu berriak ematen dizkigu; euskara munduan dago eta mundu bat da euskara. ■

Bertsoa paperean

Gaia: Bertsolari Txapelketa Nagusia.

Izena: Unai Izagirre.

Doinua: *Oihan beltzean zoinen eder den.*

Heldu zaizkigu txapelketaren

lehenbiziko argi printzak dantzan hasiak dira onenen doinu, errima ta hitzak nahiz ta jendeak kultura hartu aldagai epaitezintzat zaleengana ailegatzeko aukera bat bada behintzat.

"Aurtengo hontan baietz gazteren

bat zeharo nabarmendu!"

"Baietz gutxien uste den batek onenei txapela kendu!"

Azken finean zer axola du guztietan zein gailendu, bersolarien arteko lehian bertsoak irabazten du.



**BERTSOLARI
TXAPELKETA
NAGUSIA 2022**

www.bertsosazale.eus
www.bertisosarrerak.eus

**FINALAURREKOAK
2. ITZULIA**

AMURRIO
Azaroak 19, larunbata, 17:00
Barrieta Kiroldegia

BAIONA
Azaroak 26, larunbata, 17:00
Lauga

BILBO
Abenduak 3, larunbata, 17:00
Bixkale Frontoa



FINALA

IRUÑEA
Abenduak 18, igandea, 11:00
Nafarroa Arena

Arroztasunak:



Laguntzaileak:










bertako-REKIN BAI!
igogailuak | ascensores

OROTARIKO ZERBITZUA
100€-tik/hileko

- Baletz mantentze-lan profesionalak
- Baletz berotako 74/7365 zerbitzuari

GIPUZKOA
943 903 450



www.bertako.eus

MAXIXATZEN 2022-AZAROA 47

**ORAIN,
LARUNBAT GOIZETAN ERE,
ZABALIK GAUDE
10:00ETATIK 13:00ETARA**

Julio Urkixo, 16 • AZKOITIA • 943-85 18 97 • www.milar.eus


FK
KOPISTEGIA

Inazio Iriarte, I • 20720 **AZKOITIA** • (Gipuzkoa)

Tel.: 943-85 20 52 • Faxe: 943-85 20 91

j.artetxe@fkkopistegia.es